

TOKIKOM

2009ko iraila / 85. zenbakia

ailkar!

txorierriko aldizkaria



Ausartak gara

NOIZEAN BEHIN ZUTIK DANTZA TALDEA IRTXAN ELKARTEA

KANPINGAGS-ER AUREZTEN DU:

Hor al zaude

ZUZENDARIA: JOSEBA APAOLAZA

AINHOA AYERBE

ASIER HORMAZA

Lekua: Sondikako Kultur Etxea
Eguna: Urriak 17 Ordua: 20:00
Salneurria: 1€

Sarrerak salgai umiaren 1etik 14ra
Mankomunitatean, liburutegietan, euskaltegietan
edo ordubete lehenago ikusita bertan

AUTOREA:
JAVIER DAULTE

ITZULTZAILEA:
JULIA MARIN



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara
Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan,
Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite
Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Ama-
goia Guezuraga, Pospolin, Jon Goikouria eta
Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Inés Serrano, Ana Mezo,
Imanol Alvarez, Xabier Díaz, Oihana Astobieta,
Belen Gana, Juan Luis Goikoetxea, Larrondoko
lagunak, Igor García eta Juantxu Bilbao

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki
Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.500


Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen
edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA BASIA
I. EUSKAL KULTURAREN ERKUNTZA
II. EUSKAL KULTURAREN ERKUNTZA



diruz lagundutako aldizkaria




12 Noizean Behin

16 Zutik dantza taldea

30 Irtxan elkarte

- 4 Eritxia
- 5 Gutunak
- 6 Laburrak eta albisteak
- 11 Iruditan
- 12 Gurean izan da... Noizean Behin taldea
- 14 Gaztea eta... Ainara Ibarluzea, Maria Martinez
- 16 Zutik dantza taldea
- 18 Gai nagusia
- 29 Publierreportajea
- 30 Elkarteak/Taldeak... Irtxan pala taldea
- 32 Baserri mundua
- 34 Txorierri ezagutu
- 37 Aikorrizketan
- 38 Teknologia
- 39 Antxinako argazkia
- 40 Sukaldaritza
- 41 Denborapasa
- 42 Agenda





IMANOL ALVAREZ
(Filosofian lizentziatuta)

Internet zabaldu dut gaur goizean, magdalenak kafe berotan busti eta... Biztanleriaren Nazioarteko Eguna dela ikusi dut! Biztanleriari errespetua galtzeko asmorik gabe, nola egin ez dakidalako bategiz ere, gertakizunaren transzendentziak irribarre ironiko bat lapurtu dit. Munduak daraman bideari eutsiz gero, nazioarteko goiza eta arratsaldearen artean desberdintzen hasi beharko gara, arazoak ha maika! Eta egunak 365 baino ez!

Gizarte postmoderno honen eskutik, nire gurasoen hamarkadetako justizia ide-

alek solidaritate urardotu eta erosoago baten forma hartu dute. Indibidualismoak mugimendu sozialen lekua hartu du, sinbolikoak sinbolo handien aulkia bereganatu duen moduan. Baita fruitu ezak ereiten duen pesimismoaren erruak ere... Garai bateko aldarrikapenak bidean galdu ziren, beraz, izebergaren punta ziren "pin"ekin konformatu garen arte, nazioarteko egunen forma hartu duten "pin"ekin. Baina "Pin" bat edonork jartzen du; mobilizazioek esku eta hanka askoren beharra dute.

Ikusitakotik ikasten badugu ere, etengabeko errepikapena behar dugu ikasitakoa barneratzeko. Sinbolikoa haizeak daraman hitz bilakatu da, eta gehiegitan kontraesanean dago gaur, bihar eta etzi egiten dugunarekin. Errealitatearen sinplifikazioak kaltegarriak suertatzen dira gehienetan, eta kontzientziak suspertzeko jaiotako sendagarria lotan mantentzen dituen ziz-

tada lasaigarri bihurtzen da. Ez du ezertarako balio eskoletan Uraren edo Zuhaitza-ren Eguna ospatzeko, folioak neurririk gabe erabili edo ur-jolasak egiten baldin baditugu urtean zehar umeen gozamenerako... eta gure erosotasunerako noski!

Guztiak omen gara askeak eta horrela izan behar du. Baina koherentzia pixka bat eskatzea filtro itzela da askotan, hausnarketa eta autokritikaren bidetik pasatzera behartzen gaituen filtroa. Sinbolikoak, aldiz, inkoherentziaren munduan lasai asko esertzera gonbidatzen du gure kontzientzia... kontsumo gizartea den gurgil erraldoi honek topatzen duen azken oztopoa, beharbada. Aspaldian konformatu ginen Zesarren emaztea iruditze hutsarekin. Paradoxikoa da, ordea, itxuren mundu hau gehienek gustukoa ez izatea... euren esanetan behintzat! Zein distantzia hitzetatik ekintzetara, zein zaila den gauzak eraldatzea...

Bagara batzuk opor egunak amaitu eta lanean hasi garenok. Oraintsu arte, atsedena dia produkzioari lotuta dagoelako ideia izan da nagusi. Gaur egun, oster, beste zerbait gehiagotzat ere jotzen da, aldatu egin direlako bizitzeko erak eta beharizanak. Lan egiten dugu, besteak beste, oporraldirako egiten ditugun planak ordaintzeko. Opor egunen erabilera modu askotakoa izaten da eta egokiak izan daitezke denak: gozatzea, atsedena hartzea, beste batzuek ikustea, lagun berriak egitea, kulturen arteko kontrastea egitea, irakurtzea, dibertitzea, osasuna irabaztea, etab.

Oporraldia



ANA MEZO
(Irakaslea)

Baina bestelakoak ere gerta daitezke, jendearen artean "ondo ikusita" dagoenaren arabera planifikatzen ditugulako oporrak. Horrek presionatuta sentiarazten gaitu. Derrigorrak diru kreditua diru kredituaren gainean eskatzea ere ekar dezake.

Edozelan ere, beste aldaketarik ez dagoen bitartean, opor osteko "depresio" barik egin beharko dugu lan, eta bakoitzak bere estiloan goza ditzala oporrak.

Beste baterako utziko ditugu lan egiteko aukerarik ez izanik oporrik hartzen ez dutenak, lanean ibili arren oporretarako aukerarik ez dutenak eta bestelakoak.



Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, AIKOR!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Lezamako mugetatik, indartzen doan ekimena

Abuztuaren 30ean laugarren aldiz egin zen Lezamako Mugetatik mendi martxa eta lasterketa. Ekimena herriko zazpi elkartetan antolatu dute aurten: Goitioltza jai-batzordea, Basobaltz jai-batzordea, Lezama Bizirik, Ekidazu, Oxangoiti, Zorritzeta eta Gurasoen Elkartea. Eguraldia lagun, ibiltariak zein korrikalariak pozik azaldu ziren egindako ibilbidearekin eta antolakuntzarekin; eta antolatze lanetan buru-belarri eta musu truk ibili ziren 70 pertsonak, askoz pozago. Zerrendan 197 korrikalarik eta 310 ibiltarik eman zuten izena, eta horiei martxa txikian gurasoeekin batera parte hartu zuten 40 umeak gehitu behar zaizkie.

Lezamako Mugetatik ekimenak herri bideak berreskuratzea du helburu, eta bide

batez Lezamako mugak eta alboko herrietakoak –Larrabetzu, Fika, Zamudio, Bilbo eta Galdakao- ezagutzea. Horrezaz gainera, Lezaman zoritxarrez gainbehera doan nekazaritza eta abeltzaintza sektorea ere ezagutzeko aukera izan dute parte-hartzaileek aurtengo ekitaldian.

Lerro hauetatik esker ona eman nahi diet babesle guztiei, eta Lezamako elkarte guztiak hurrengo edizioan parte hartzera animatu mahi dutut. Izan ere, bosgarren edizioa izango da eta guztion artean ekimen bikaina egin genezake. Eta ea Udala ere animatzen den aurten “krisia” dela-eta eman ez duen diru-laguntza ematera.

Jabi Agirre

Eskerrik asko, Josune

Orain dela urte bi gure seme-alabak hartu zenituen Gorondagane herri-ikastetxean, haur-hezkuntzan. Gurasook badakigu zein garantzitsua den heziketa, adin horretan batez ere, baita andereño egokia izatea ere. Zuri esker, umeak ilusioz beterik joaten ziren egunero eskolara. Laudorio guztiak merezi dituzu, zure lana izugarria izan delako. Hori guztia kontuan hartuta, sentitzen dugun poztasunaren berri eman nahi dizugu gutun honen bitartez. Eskerrik asko, Josune. Maite zaitugu.

Porres-García familia

EDITORIALA

Aurpegi berria, betiko arima

Artikulu hau irakurri orduko, ziur asko konturatuko zineten. Itxura aldatu diogu aldizkariari, baina ez kezkatu aldaketa kanpoaldean baino ez dago-eta. Barrualdean ohiko arima eta xedeari eutsiko diegu; hau da, Txorierrin gertatzen denaren lekuko izaten jarraituko dugu, horren berri zuei emateko. Itxura-aldaketa iaz irakurleen artean egindako inkestaren ondorioa da. Orokorrean oso emaitza positiboak jaso arren, ez gara konformatu eta gogor ekin diogu lanari, zuei ahalik eta aldizkaririk erakargarriena es-

kaintzeko.

Aikor! aldizkariak hasi duen etapa berri honetan argitasun eta modernitatearen alde egin dugu. Horretarako, artikulu eta albisteen diseinua berrikusi eta letra mota garbiagoa aukeratu dugu, zuek erosoago irakur dezazuen. Era berean, zuri-belta albo batera utzi eta apustu sendoa egin dugu kolorearen alde.

Aldizkariaren goiburuak bide luzea egin du eta horri ere modernitate-kutsua eman diogu. Goiburu berria hobeto moldatzen da gaur egungo garaietara; hala

ere, txoria mantendu dugu bertan, gure identitate-marka delako. Kolore biziagoa duen txoria da, indar handiagoa duena.

Edukiei dagokienez ere nobedadeak daude. Hala, atal berri bi sortu ditugu: “Iru-ditan” eta “Aikorrizketan”. Lehenengoan Txorierriko argazki taldeen laguntzari esker, bailarako txoririk ederrenak plazaratuko ditugu hilero-hilero. Eta bigarrenean, ahaleginak egingo ditugu bertoko euskara, ahoz esaten den moduan, zuei hurbiltzen.

Aikor! aldizkariaren lantaldeak ilusio handiz dago etapa berriari begira. Zuek ere aldaketa atsegin izatea espero dugu. Horrela bada, beteta izango dugu helburua.

Badozu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Aikortxoriaren argazkiak

Aikortxoriaren argazkiak

Plataformak

Aurkezpena agertu...



902 54 08 54

www.arlan.com

Derio

Irailaren 25ean, barikuan

19:00: Txosnen irekiera. Argazki Lehiaketaren hasiera

19:30: Kalejira, Guretzat fanfarreak girotua

21:00: Pregoia, Jai batzordeko hiru kide berrien bataioa eta txupina

00:00: Berbena, Lisker taldearekin. Atsedendian, ikuskizun erotikoa

04:00: Diskoteka

Irailaren 26an, zapatuan

10:00: Goizeko petardo-sorta

11:00: Haurrentzako jolastokia: quad-ak eta globo aerostatikoa

11:30: Gastronomia Lehiaketak: Paella, Tortilla, Azkenburukoak eta Pintxoak

13:00: Batukada

14:00: Kazolak aurkeztea eta sariak banatzea

15:00: Herri-bazkaria

16:00: Bingoa

17:00: Konpartsen arteko partida

19:00: Jatunen Lehiaketa

20:00: Ordu zorionsua: garagardoa eta kalimotxo, 1 euro; katxia, 2,50 euro

22:00: Mozorro Lehiaketa

00:00: Kontzertuak: Calcetines y cachetes eta 6eiskafes

00:00: Petardo-sorta ezin gogorragoa

04:00: Diskoteka

Irailaren 27an, domekan

08:00: Bigantxak

10:00: Goizeko petardo-sorta

13:00: Dantzaldia, Palmeras orkestrarekin

17:00: San Migel jaietako XVI. zezenketa

20:00: Diskoteka

San Migel jaiak ospatuko ditugu

**Irailaren 29an, martitzenean**

17:00: Umeen arrastia

19:30: Jubilatuentzako kopaua

20:00: Diskoteka

Urriaren 2an, barikuan. Euskararen**Eguna**

17:30: Sun magoa

19:30: Txorizo sagardoarekin, txistulariek girotua

21:00: Karaokea

00:00: Berbena, Trikizio taldearekin

03:00: Montaito-ak (haragi-ogitartekoak)

Urriaren 3an, zapatuan

10:30: Julio Garitano VII. Futbol Txapelketa

14:00: Indaba jana

15:00: Azkenburuko sorpresa

15:30: Koktelak

16:30: Zezen Lehiaketa

19:00: Moda desfilea, Sollube kalean

20:00: Pultsu Lehiaketa

00:00: Berbena, Nueva Alaska orkestrarekin

04:00: Diskoteka

Urriaren 4an, domekan

10:00: Goizeko petardo-sorta

13:00: Dantzaldia, Lotxo orkestrarekin

15:30: Jai batzordearen bazkaria

18:00: Euskal dantzak, Lainomendi taldearen eskutik

20:00: Txokolatada

20:15: Konpartsen eta Argazki Lehiaketaren sari banaketa

20:30: Diskoteka

23:00: Txupina eta jaien amaiera



Lauroeta (Loiu)

Irailaren 26an, zapatuan

09:00: Lauroetako V. mendi ibilaldia
13:00: Jaiei hasiera eta txosnaren irekiera

18:00: Umeentzako jokoak: tira-goma. Zinea

20:00: Disko-txou, diskoteka mugikor ikusgarria

21:15: Saiheski eta txistotarra jana

22:30: Disko-txou, diskoteka mugikor ikusgarria

Irailaren 27an, domekan

11:00: Kalejira

12:00: Meza

12:30: Perkusio taletarra

13:30: Tor magoaren erakustaldia



15:00: Herri-bazkaria (baserritarrez jantzi-ta)

18:00: Dantzaldi ibiltaria, Aiko taldearen eskutik

19:00: Idi-zaldi probak

21:00: Erromeria

Irailaren 29an, martitzenean. San Migel

10:30: Kalejira

12:00: Meza

13:00: Briska Txapelketa eta urgaritxo jaurtiketa

18:30: Tiragoma jaurtiketa

20:30: Bertsolariak

22:00: Ahuntzaren zozketa

22:30: Jaiei amaiera eta txokolatada

Egun osoan zehar umeentzako puzgarriak, gaztelua eta rokdromoa

Mendizaleen hitzordua, Lezaman

Aitor Osak eta Nerea Amilibiak Lezamako Mugetatik mendi lasterketa irabazi dute aurten. Alberto Perez eta Loli Benitez gailendu ziren beteranoen kategorian; eta Unai Bilbao eta Alaitz Barrena, "Lezama" kategorian. Lasterketan 200 lagunek eman zuten izena. Euskal Herriko korrikalariez aparte, Estatuko beste herrialdeetatik etorritako lagunak izan ziren parte-hartzaileen artean. Baita britainiar bat ere. Lasterketarekin batera mendi martxa ere egin zen, eta bertan 500 bat mendizalek hartu zuten parte. Goiz osoan zehar giro ezin hobea izan zen eta ekitaldiari amaiera emateko, piperrada eskaini zen. Ekimena hauek antolatu dute: Ekidazu, Oxangoiti, Zorritzeta, Gurasoen Elkartea, Lezama Bizirik, eta Basobaltz eta Goitioltzako jai-batzordeak. Elkarrekin pozik azaldu dira aurtengo edizioan izandako arrakastarekin. "Batez ere, eskerrak eman nahi dizkiegu lanean burubelarri ibili diren 70 boluntariori. Eta oro har, parte-hartzaile, auzokide eta babesleei".



Eleixeta (Larrabetzu)

Irailaren 29an, martitzenean. San Migel

12:00: Meza. Ostein, kopaua

12:30: Mus Txapelketa

13:00: Trikitixa

Irailaren 30ean, eguaztenean. San Migeltxu

12:00: Meza. Ostein, kopaua

12:30: Briska Txapelketa

13:00: Trikitixa

Urriaren 4an, domekan

12:00: Meza

12:30: Briska Txapelketa

13:00: Trikitixa

14:00: Paella jana. Ostein, Bolo Txapelketa, koadrilen artean


LARRABETZU BASERRIKO ELKARTEA
ARTE EDERAK - ESKULANAK E.A.
JOSU MARTIN / ANITA JIMENO
Ereduak, irudiak, planifikazioa, proiektuak, materialak, materialak, proiektuak eta materialak.
Mendi Zentroa 2 - 48100 Leizor (Bizkaia)
www.larrabetzu.com

ASESORIA
Larrabetzu Baserriko Elkartea
Mendi Baserriko Elkartea
Tel: 94 475 11 14 - Fax: 94 475 11 15
48100 LARRABETZU (Bizkaia)

GAMINIZ JATETXEA

Tel: 94 475 11 14
www.gaminiz.com
Fundatzaileak: Larrabetzu Baserriko Elkartea
www.larrabetzu.com

"Txelis"en ustez, "maila handia" izan du txapelketak, "Suitza, Suedia, Holanda eta Irlandako taldeak, batez ere". Txorierriarrak "pozik" itzuli dira etxera, eta egin duten denboraldi ederraz gozatzen jarraituko dute berton. Izan ere, aurten Euskal Herrian jokatuarekin lau txapelak lortu egin dituzte.

Jon Legarretak "Planetak: urrutiko auzoak ezagutz" hitzaldia eskainiko du urriaren 22an, arratsaldeko 8etan, Zamu-dion. Ekitaldia Lagatzu eus-

Jose Ramón Etxebarria eta Jon Legarreta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak dira. Etxebarriak Fisikaren gainean euskaraz egindako hainbat argitalpenetan hartu du parte, eta Legarreta EHUKo Zientzia Planetarioen Taldeko ikerlaria da.



L'Espresso

L'Espresso 2015-2016

L'Espresso 2015-2016

**Carniceria
Charcuteria
IMAX**

ESTABLECIMIENTO
DE CARNE DE CALIDAD

GRUPO
LA FERIA DE LAS
CARNES



Zorritzketan elkartearen bazkaria, gero eta arrakastatsuagoa

Urtero lege, bazkaria antolatu zuen Zorritzketan euskara elkarteak Lezamako jaietako egitarauaren barruan. Ekimenak hiru helburu nagusi ditu: euskara bultzatzea, herritarren arteko harremana euskaraz izatea sustatzea eta lezamarrak elkartzeko gunea sortzea.

Urteak pasa ahala egiaztatu ahal izan dugun moduan, gero eta jende gehiagok egiten du bat Zorritzketan deiarekin. Aurten, esate baterako, 250 lagun inguru

bildu dira mahai inguruan; lezamarrak ez ezik Txorierriko beste herrietatik etorritako lagunak eta euskaltzaleak ere. Hernaniko abesbatzak saioa eskaini zuen Andra Mari elizan Ekidazu abesbatzarekin batera, eta eurak ere gonbidatu zituzten ekitaldira.

Bazkarian parte hartu zutenek marmitako ezin gozoagoa dastatu zuten, solomo piperrekin eta postrea. Txakolina barra-barra edan zen. Bazkalondoa Astrapala taldeak girotu zuen.

Gestorientzako euskarazko hitzarmena

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak gestoriei zuzendutako euskarazko hitzarmena jarri du abian, Artez Euskara Zerbitzuaren bitartez. Hitzarmenarekin bat egiten duten gestoriei doan euskaratuko zaizkie bezeroentzat egiten dituzten agiriak-eta. Honen helburua, Txorierriko merkataritza guztiek apurka-apurka idatzizko produkzio guztia euskaraz eta gaztelaniaz eduki ahal izatea da (hala nola nominak, gizarte segurantzako kontuak...). Itzulpenak Artez euskara zerbitzuak egingo ditu.

Merkatariekin hitz egin ostean, Mankomunitateko Euskara Zerbitzua harremanetan jarri da Txorierriko hiru gestoriarekin, eta horietako bik, jadanik, egin dute hitzarmena. Hirugarrenak laster egingo du.

Eskualde Txapelketa urrian hasiko da

Pilota Elkartea buru-belarri dabil Lezamako Eskualde Txapelketa prestatzen. Txapelketak 51. edizioa beteko du aurten eta, aurrekoetan bezala, afizionatu mailako Euskal Herriko pilotari onenek hartuko dute parte bertan. Partidak urriaren 16an hasiko dira eta Lezamako frontoian jokatuiko dira barikuetan, arratsaldeko 8etan. Txapelketan maila bi egongo dira: promesak eta lehenengo maila berezia. Kategoría bakoitzean 16 pilotari arituko dira.



Batzar Nagusietan sartzea antzeztuko dute Derion

Gernikako Batzar Nagusiek duela 321 urte hartu zuten aintzat San Kristobal Derioko elizatea, eta derioztarrek ekimen berezia egingo dute urteurrenaren haritik: Batzar Nagusietara sarrera antzeztea. Fernando Ansoleaga da lanaren zuzendaria eta bertan 100 herritar inguruk hartuko dute parte.

Antzezlana bost zati izango ditu, eta horietan garai hartako bizimodua, ohiturak eta egoera politikoa islatuko dira. Lehenengo ekitaldian hiru belaunalditako emakumeak azalduko dira etxean, eta bigarrenean eliztarrek aterako dira meza-tik. Hirugarren ekitaldian baserritarrek agertuko dira merkatuan, eta laugarrenean Martinek eta lagunek solasaldia izango



dute Batzar Nagusietan sartzeko beharri buruz. Antonio Miguel de Zaldúa eta Ugarte jaunak Derio aintzat hartzeko eskaera eramango du Batzar Nagusietara azken ekitaldian, eta batzarkideek botoa emango dute.

Antzezlaren amaieran danbor-arra-

dak entzungo dira eta desfile bat egingo da. Desfilearen pertsonaia bakoitzak garai hartan Derion zeuden 20 baserritariko bat adieraziko du. Antzezlana urriaren 24an izango da kiroldegian, eta saio bi emango dira: bata, arratsaldeko 8etan; eta bestea, gaueko 10etan.

Uholdeak



Argazkia: Iñigo Aurrekoetxea

Euria barra-barra ari zuen hilaren 18an. Derion, esate baterako, 135 litro ur hartu ziren metro karratuko. Udaltzainek errepide batzuk moztu behar izan zituzten bertan: Loiu eta Sondikarako bideak, eta Ugaldeguren industrigune eta Bizkai-ko Teknologia-Parkerako sarbideak, besteak beste.

Zamudion ere errepide gehienak itxi ziren zirkulaziorako: Torrelarragoiti industrigune eta ospitale psikiatrikorako sarre-
rak eta Exane bidea, tartean. Kalterik handienak futbol-zelai inguruan izan ziren, ura metro bateko altueraino heldu zen-

eta. Santimami auzoko etxe batzuetan ere arazoak egon ziren.

Beste alde batetik, Lauroetako txokoa urez bete zen, eta Loiuko errepide batzuetan lur-jauziak egon ziren. Lezamako bideetan ere harriak eta lokatza garbitu behar izan zituzten. Baina arazo larrienak herrigunean gertatu ziren, urak garajeak, frontoia eta tabernak hartu baitzituen. Larrabetzun ere arazoak sortu zituen euriteak hainbat lekutan: frontoian, Sarrikola edo Zubitalde auzoetan, esaterako. Sondikari dagokionez, erreka inguruan izan zituzten arazoak, La Ola aldean, alegia.

Intermarketing - marketing
MICHEL
"Marketing and communication solutions"
Miguel Perera, T + 34 915 41 80 00 - F + 34 91 42 14 14

IMPORTACIONES ETS
ELMONTES
"Importación y venta de vehículos"
Miguel Perera, T + 34 915 41 80 00 - F + 34 91 42 14 14
www.elmontes.es

Nischen **rukaldiek**
"Interior design and decoration"
"Interior design and decoration"
"Interior design and decoration"
"Interior design and decoration"

multiprecio
Rakel
"Multi-price solutions"
"Multi-price solutions"




POXPOLIN
"Polymers and resins"
"Polymers and resins"



Sondikako nire txokorik gustukoena

Naturaz inguratuta badago ere, ez dago herritik oso urrun. Bazter honek Sondika beste garai batean izan zena dakarkit gogora: gure herrixka txikia. Inguru honetan harmonian bizi dira hegaztiak eta ardiak; hala ere, ez dut esango non dagoen, bestela turistaz beteko zaigu eta.

Argazkia: Igor García Piñas (Sondika Goiri Argazki Taldea)



NOIZEAN BEHIN | musika taldea

Zelan Lezaman?

Gustura ibili ginen. Taldearen gorabeherak zirela-eta kontzertu gutxi eman dugu aspaldi honetan. Lezamakoa aspalditik hitzartu genuen, eta eguna noiz helduko zain egon gara.

Trikizio eta talde lokal batekin aritu zineten eszenatokian. Nahiago duzue bakarrik io ala beste talderen batekin?

Beti beste talderen batekin. Ondo dakigu zein den taldearen estatusa eta badakigu ez dugula jendea herri batetik bestera mugiarazten. Hala ere, argi dugu aproposak garela publikoa animatzeko. Beraz, ahal den guztietan nahiago dugu jo beste talderen batekin.

Arazi bigarren diskoa duzue. Zelangoa da?

Badira ia ur-
te bi *Arazire-*
kin buel-
taka

Noizean Behin taldeak metalaren soinuak ekarri ditu aurtentzen Lezamako jailetara. Bizkaitarrek kontzertu indartsua eta energiaz betea eskaini zuten.

*"Zaletasuntzat dugu
musika eta horrela
izaten jarraituko du"*

gabiltzala eta zuzenekoako disko apro-
posa dela uste du. Gogorra da, zorro-

tza, baina dinamikoa eta kantagarria; melodia asko duena. Generoa gustatuz gero, erraz sartzen da. Hala ere, esan behar dugu kantak oso momentukoak dirala. Irten ziren moduan konposatu genituen, eta horrek freskotasuna ematen die batzuetan, baina beste batzuetan, berriz, lekuz kanpo utz ditzake abestiak.

**Zer sorrarazi nahi duzue zalearen-
gan *Arazi* diskoarekin?**

Emozioak, mugimendua. Bolumena igo eta olio-ipurdia jartzea, burua astintzeari utzi ezinik ibiltzea eta eztarria urratzea. Hurrengo egunean

[illegible]


МОНАСТЫР
 1772
 МОНАСТЫР
 МОНАСТЫР
 МОНАСТЫР

[illegible]

ahotsik gabe egotea, lepoko min eta egundoko ajearekin, eta harro sentitzea.

Badu alderik bigarren disko honek lehenengoarekin konparatuta (Inoiz kontatu ez nizkizunak)?

Bai, badu. Ohiko esaldia den arren, bigarren diskoa lan helduagoa da. Ideia hobeak ditu eta kantak borobilagoak dira, hobeto garatuta daude. Arinagoa da, askoz kantagarriagoa eta anitzagoa.

Taldeakideak Mungia, Bilbo eta Gatikatik zaudete barreiatuta. Lana oztopatzen du horrek?

Neurri handi batean, bai. Denontzako aproposa den erritmo bat topatu beharra dago eta ez da behar erraza izaten. Hegoi baxu-jotzaile ohiak, esate baterako, taldea utzi behar izan zuen, bere bizitza Donostian zegoelako. Orain taldean gelditzen garen hirurok inoiz baino lanpetuago gabilta, baina oso hurbil gaude bata bestearengandik eta hobeto moldatzen gara.

Zer da musika zuentzat, lana ala zaletasuna?

Beharizana da, baina beti zaletasuntzat hartuta; hasieran, baduzu taldearekin zerbait lortzeko ilusioa. Baina musika munduan aurrera egin ahala, bide bat jorratzen zoaz, gauzak egiteko era bat hartzen duzu eta taldeak bere izaera garatzen du. Guk zaletasuntzat dugu musika eta hala izaten jarraituko du.

Taldea

–Alex: baxu-jotzailea eta ahotsa

–Ibai: gitarra-jotzailea

–Ander: bateria-jotzailea

Lanak

–Inoiz kontatu ez nizkizunak (2006)

–Arazi (2007)



“Musika kontsumitzeko erak diskoen “bizitza” gero eta arinago agortzen du”

Taldea duela zortzi urte osatu zen eta tarte honetan disko bi atera dituzue. Asko, gutxi ala nahiko?

Zortzi urtean disko bi kaleratzea ez da asko, baina, egia esan, disko bi horiek lau urteko epean atera dira merkatura; ez da go txarto. Hala ere, nabaritu dugu musika kontsumitzeko erak diskoen “bizitza” gero eta arinago agortzen duela orokorrean, edukia epe laburrean asimilatzen dela eta oso iraunkorra ez dela. Ondorioz, ia etengabe eskatzen da material berria.

Azken diskoaren aurkezpena nahi-ko txukun egin duzue. Musikaz gainera, itxura ere zaindu behar da gaur egun, ezta?

Itxurak gauza ezezagunekiko jarrera baldintzatzen du; hau da, disko bat erakargarria bada, positiboa izango da berekiko jarrera. Elementu garrantzitsua da atentzioa emateko, baina gainontzeko guztiaren osagarria izan behar da. Izan ere, horren atzean edukirik ez badago, ez du ezertarako balio.



 UNIVERSITY OF IDAHO
an equal opportunity institution

PLACEMENTS IN THE NORTH WOODS

CONSTRUCTION, MAINTENANCE, REPAIRS, AND REMEDIATION
SPECIALIZING IN ALL ASPECTS OF WOOD PRESERVATION

WOODWORK RESTORATION • STAINING • FINISHES • PAINTS
• **REPAIRS • MAINTENANCE • REPLACEMENTS**



*“Ondo legoke Txorierrin
nesken futbol talde
gehiago sortzea”*

*“Futbola izugarri gustatu
arren, etorkizunean
nahiago dugu beste
lanbide batean jardun”*

ri eta taldeari laguntzera etorri gara.

Jolaskide berriak ezagutzen dituzue?

Bai. Gu taldeko beteranoak gara, beste guztiak hasiberriak baitira futbol 11n. Ondorioz, adiago egon beharko dugu zelaian, eta dakigun guztia gainerakoei irakatsi. Denborarekin eta ahalegina eginenez aurrera aterako dugu taldea. Ziur!

Arteaga-Derio taldeak Derioko neskei ez ezik Txorierrikoei ere ematen die aukera.

Gauzak nahiko aldatu dira gu futboleari hasi ginenetik hona, eta talde gehiago daude gaur egun. Baina neskak arazoak izaten jarraitzen dugu futbol 11n herrian bertan jokatzeko, eta askok kanpoko klubetara jotzen dute. Txorierrin badira futboleko jokatu nahi duten neskak, eta ondo legoke talde gehiago sortzea. Bitartean, Derion dute aukera. Ea neska gehiago

Maria Martinez

- 15 urte, Derio
- Taldea:** Arteaga-Derio
- Postua:** erdilaria
- Aurreko taldeak:** Lauro, Arteaga eta La Merced
- Garaipenak:** Futbol 7ko Bizkaiko txapeldunak, kimu mailan (2004-2005, Lauro), Futbol 11ko Bizkaiko txapeldunak, kadete/gazte kategorian (2008-2009, La Merced)
- Futbolaririk kutunena:** Puyol eta Iraia Iturregi
- Ikasketak:** DBHko 4. maila

go animatzen diren gurera etortzera!

Athleticekin egiten duzue amets?

Uf! Futbola izugarri gustatzen zaigu eta klub on batean egon nahi dugu, baina Athleticen izateak dedikazio handiegia eskatzen du. Hobbytzat hartzen dugu futbola, eta etorkizunean beste lan batean jardutea gustatuko litzaiguke.

Haiek garai batean izandako boomerari eusten zaio, zuen ustez?

Ez, gauza puntuala izan zen. Nesken entrenamenduetara, adibidez, lagun gutxi joaten dira, eta Lezama zalez gainezka egoten da mutilek entrenatzen dutenean... Gizonezkoen futbola eta emakumezkoena parekatuta egotea gustatuko litzaiguke, batzuek neskena bigarren mailako futbolaritzat ez hartzea, mutilek dituzten aukera berberak izatea, gure futbolak oihartzuna handiagoa izatea komunikabideetan...





t: Belen Gana / a: Zutik taldea

Zutik taldeko kide batzuei bururatu jaken lehengo partaide guztiei deitu eta ekitaldi bat prestatzea Santiagoko jaietarako. Esan eta egin. Jentea deitu, kartelak prestatu, gogotik entseatu, arropea aukeratu eta aurrera!

Plazea bete jente batu zan alardea ikusteko. Hil diran partaideen argazkiak plaza erdian kokatu ziran. Zutikeko andrak arropa dotorez jantzita eta gizonezkoak alkondara zuria eta mahoizko frakak soinean etorri ziran, eta Lainomendikoa-kaz pasakailean sartu ziran, *Agintariena* jantzatzer.

Ikurriña airean danok babesten sentitu genduanean, besoetako uleak tente imini jakuzan jantzari eta ikusleoi, eta momentu berezi haretan danok egin genduan bat jantza honen esanguragaz. Ostein, *Txakarrankuan* jantzaria gora igo zanean, "eup" indartsu bat entzun zan jente eta jantzarien artean. Zutikeko helduek hanka goraino altxatzea ez dabela ahaztu erakutsi euskuen *Banango* egin

RPA
MANAGERIAL INFORMATION
I MITI SI TAVOLANO IN INFORMATICA
ESODI IN MANUTENZIONE
SISTEMI E TECNICHE

Area Piana 20.000 - 01.00 - Pinerolo
 Tel. 011/26.00.00 - 011/26.00.00 - 011/26.00.00

Ametsa zuten eta bizi egin dute

Gorenera iritsi nahi zuten lehenengoe; eta bigarrenek, hareazko itsasoa zeharkatu. Uda honetan espedizio bi atera dira Txorieritik, bakoitzak bestelako norakoa zuela. Mendizaleak GII *zortzimilarekin* ausartu dira; eta abenturazale gazteek autoz egin dute bidaia Mauritaniara.

“Mendizaleak jakin behar du nora doan; arriskua beti dago”

t: Itxaso Marina / a: Jon Aroztegi

Bidaiaetik bederatzi kilo galdu zenituela bueltatu zinela entzun dugu. Indarberrituta?

Bai. Ahul bueltatu naiz, tripetako arazoekin, eta astebete eman dut burua altxatu ezinik. Baina inguruko jaiak oso aproposak dira indarrak berritzeko; bada-kizue, afariak, bapo jan...

GII-ren gailurrera heltzea zenuten erronkatzat; hala ere, ezinezkoa izan zen.

Mendia oso egoera txarrean zegoen. Guk hilabete eta erdi eman genuen bertan, eta gurekin batera beste 15 bat espedizio ibiliko ziren gailurrera igotzen saiatzen: 150 lagun inguru. Guztietatik mendizale bik baino ez zuten lortu: bata “makina” da, mundu mailan ospe handia duen mendizalea; eta bestea, arduragabea.

Zelango egoerarekin egin zenuten topo?

Teorikoki uztaila hilabeterik aproposena da GIIra igotzeko, eguraldi ona izaten delako. Baina guk ez genuen eguraldia lagun izan: egun baretu bi ateratzen baziren, hurrengo hiru egunetan mara-mara ari zuen elurra, aurreko egun bietan konpondu zena berriro hondatuz. Elurjauzien arrisku handia zegoen.

Noraino allegatu zineten zuek?

Bigarren kanpamenturaino, 6.400 metroko altituderaino. Gauzak prest ginituen hirugarren kanpamentua atondu eta gailurrera igotzeko, baina ez zen aukerarik egon. Ondo aztertu behar da zein

Gasherbrum II (GII) Karakorum mendikatean dago, Pakistanen, eta munduko mendirik altuenetarikoa da (8.035m). Jon Aroztegi Arroeta Zamudioko mendi taldeko kideak eta lagunak euren lehenengo *zortzimilari* egin diote aurre.





**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

*Arleaga auzoa, 119
Iruñea: 94 452 11 98
ZAMUDIO*



GALAISA

1. berritas eta erreginazkoak
941 454 04 (B) • 941 451 73 (B)



Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Isarra (Tel. zerbitzu Zerbitzu Zerbitzu)

94 453 25 15
94 453 36 04



Gestión Zamudio s.l.

Gestión Zamudio s.l.

941 452 11 98

941 452 11 98



ATARRABI

941 452 11 98



**euskara ikasi
eman izena**

**Txarieriko AEK
Txepetxo euskaltegia**
944 543 967 - 607 598 794
Gorbea kalea 5, behe txepetxo@eak.org

Txarieriko euskaltegia ikasteko eta
Lusko jaiak ikasteko dirua lagunduko

garena ikasteko

www.eak.org



Gestión Zamudio

Asistentzia Fisika

**Jon Vitoriano Landa
Asistentzia Fisika**

941 452 11 98



GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAKUNTZAK: LEHISTE HANDIAK:

ORDAINTZEKO ERAKUNTZEN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Garaioltza s.a. (Tel. 941 455 50 19)

Lezama (Nafarroa)

“Lagun bik baino ez dute lortu gailurrera heltzea: bata “makina” da; eta bestea, arduragabea”

“Elur-jauzien arriskua zegoen eta 20 egun eman genituen eguraldiak hobera egiteko zain. Ez zen aukerarik egon”

“Hurrengo espedizioetan lagungarriak izango zaizkidan gauza asko ikasi ditut mendi zein nire buruari buruz”



den mendiaren egoera eta aurre egin beharko zaion arriskua. Guk 20 egun eman genituen eguraldiak hobera noiz egingo. Eta itxaroten ari ginela, gero eta urrunago ikusten genuen gailurra.

Espedizioak GI-ra (8.068m) desbi-deratu ziren, eta zure kide bat, Nestor, beste talde batekin elkartu zen.

Eta gailurrera heltzea lortu zuen. Kasu honetan mendiaren beste malda batetik igotzen da gailurrera, eta eguraldiak ez zion hainbeste kalterik egin malda horri. Gutariko batek lehenengo aldiz *zortzimila* bat egitea lortu du, eta oso pozik gaude.

Zuk, aldiz, eurekin ez joatea erabaki zenuen, zergatik?

Ez nenbilen ondo eta taldearentzat zein niretzat hobe zen erabakia hartu nuen. Eurekin joan banintz, arriskuan jarriko nituzkeen.

Etsigarria izango zen hori bezalako erabakia hartu behar izatea.

Lehenengo aste bian indartsu ibili nintzelako batez ere. Baina oso ahul nengoen momentu horretan, kilo asko nituen galduta eta altuerak eragina izan zuen nigan...

GII-a zortzimilarik errazenetarikotzat dute. Ados?

Hori buruz, hain zuzen ere, aritu ginen gainontzeko espedizioekin. Teknikoki ez dela oso mendi zaila diote. Zailtasun teknikoak eguraldiak, elurraren eta mendiaren egoerak eta norberaren egoerak sortzen ditu. Barre egiten genuen: hau erraza bazen, nolakoak izango ziren besteak! Baltoro glaziarra zeharkatze hutsa bada abentura. Guk lau aldiz zeharkatu genuen eta laugarrenean bazegoen zuloz beteta, horrek dakarren arriskuarekin. Lehenengo kanpamentutik bigarrenera joateko, taketez finkatutako soka tinko bat dago



eta taketak edozein momentutan aska daitezke. Bigarren kanpamentutik hirugarrenenerako bidean elur-jauzien arriskua dago, eta tontorrerako bidean errespetua ematen duen ertza dago. Ez, ez da mendi erraza, eta aurten tontorrera bi pertsona baino ez ailegatzea horren seinalea da. GI-en tontorrera, berriz, 15 pertsona igo dira, mendi hori "zailagoa" bada ere.

GII-n egon zinetela mendizale bi desagertu ziren Karakorum mendikatean: Luis María Barbero, GII-n bertan; eta Oscar Perez, Latok II-n.

Gogorra izan zen. Barberorekin mendian egin genuen topo egun batean, eta, ondoren, kide bat berarekin izan zen solasean beheko kanpamentuan. Lehenengo kanpamentuan geundela, portugaldar batzuek esan ziguten 7.600 metroan argiseinaleak egiten ari zirela. Barbero zen. Erreskate-taldea osatzen bazen, gu ahal genuen guztietan laguntzeko prest geundela esan genien, baina eguraldi txarra hasi zen. Hiru egunean mara-mara ari zuen elurra eta laino itzela zegoen. Oso aukera gutxi zegoen Barbero bizirik topatzeko, eta hiltzat eman zitzaion. Oscarren berri Sebastian Alvaro *Al filo de lo imposible* saioaren zuzendariak eman zizun etxerako bidean.

Ados zaude kasu bietan hartutako erabakiekin?

Bai, ez zegoen besterik. Lehenengo eta behin, erreskatea egitea posiblea den aztertu behar da; eta, gero, pertsona bat salbatzeko, bospasei lagun oso arrisku handian jartzea merezi duen. Bizirik ego-

teko oso-oso aukera gutxi daudela kontuan hartuta, gainera. Taldearentzat horrekin dena erabaki behar da. Mendizaleak jakin behar du nora doan, arriskua beti dago.

Lehenengo aldia izan da zortzimila bat egiten saiatu zarena. Nahiz eta lortu ez, pozik?

Jakina! Halako mendietara joaten garen, badakigu gailurrera ez heltzea gerta daitekeela. Lau pertsonetatik batek lortzen badu, ondo dago. Aurten, adibidez, ez da egon igoerarik ez KII-ra, ez Broad Peak-era; GII-ren tontorrera bi lagun igo dira, eta GI-era, 15.

Berriro saiatuko zinateke?

Bai, zalantza barik! GII-ra ez bada, beste batera. Joate hutsak merezi izan du.

Lagunak egin ditut, eta esperientziak asko irakatsi dit; hurrengo espedizioetan lagungarriak izango zaizkidan gauza asko ikasi ditut mendiari buruz, eta nire buruari buruz.

Sherpen lanarekin liluratuta etorri omen zara...

Egunean lau euro inguru irabazten dute, eta hor dabilta: mendian gora eta behera, soinean 30 kiloko karga daramatela eta azokan erositako zapatila zuriak jantzita... Harrigarria da, benetan.


GII-n bizi izandako esperientzia konpartitzeko asmorik?

Proiektzioa egingo dugu Sondikan, Zamudion eta Getxon. Era berean, espedizio batera eramaten den materiala ikusgai jarriko dugu Zamudion.





dena da
Gauzen onerik gabeko
erlaxazioa



www.hastens.com

ARTEAGA koltxoi-denda
Bierika Seginaria • 94 454 51 47 • bierico

bai & by



Baizatu oraingo baldintza berriez
eta ikasi INGELESA edota EUSKARA
bai&by-ri:

MERKATUKO SISTEMA ADITU

BAKARRA: ikasleentzako
irakasle bana

24 ORDUE etxean, bulegoan,
eramangarrian...

ORDU MALGUAK zure beharren
araberakoak

MINTZAMEN-ESKOLAK taldeka,
telefono bidez

EMAITZEN ARABERAKO
ORDAINKETA

BESMEA denbora mugatu barik

HOMOLOGATUTAKOAK IKASTAROAK

Eusko Jaurlaritzak **DIRUZ**
LAGUNDUTAKOAK

LOR EZAZU DESKONTU BEREZI BAT ETA ERAMAN ZURE BAI&BY IKASTAROA ERAMANGARRI HONETAN

ZAMUDIO: TEKNOLOGI PARKEA, 103. 944 318 047

BILBO: URKAPU ZUMARRUA, 22. 944 781 857

GETXO: ALBERTO ETORRI, 76 B. 944 915 060

www.bai&by.com

ESKOLA ERAMANGARRIAK

ERAMANGARRIAK
ERAMANGARRIAK
ERAMANGARRIAK

BAI&BY-N
MATRIKULATZEAN
ERAMANGARRI
HADU OPARI*



*ERAMANGARRIAK ERAMANGARRIAK ERAMANGARRIAK

bai & by
2010



“Benetako abentura basamortuan hasi zen”

Jon Goikuria sondikoztarrak eta lagunek 10.000 kilometro baino gehiago egin dituzte abuztuan. Maroko bisitatu ostean, Mauritaniara abiatu dira eta ez dute zalantzarik izan hareazko dunetan murgiltzeko orduan. Bidaia harritu egin ditu ibilbidean aurrera egin duten ahala.

t: I.M. / a: Jon Goikouria

Usteak erdi ustel. Nouakchott (Mauritania) zenuten helmugatzat, baina ezin izan zineten heldu...

Istripua izan genuen Chinguetti herriaren inguruan eta autoak erabateko hondamena eduki zuen.

Istripu larria izan zen?

Krater batzuk ikustetik gentozela, autoaren kontrola galdu genuen bihurgune batean. Harri baten kontra jo eta kanpai-buelta batzuk eman genituen. Zorionez, ez zen zauritu larririk egon. Lagun batek mina hartu zuen trapezioan, baina aringarriak eman zizkioten bertako ospitale-

an, eta handik hiru egunetara ondo zegoen. Istripua bidaia hangoz gertatu zen eta lau egun beranduago etxera itzuli ginen.

Beno, hasieratik hasiko gara. Zein izan da bidaia hango helburua?

Mauritania ezagutu nahi genuen eta Nouakchott hango bihotza denez, hori ere bisitatu behar genuen derrigorrean. Era berean, bidaia solidarioa egin nahi genuen: bertako jendea ezagutu, euren ohiturak, bizimodua... Janaria sobera eraman genuen eta zati bat Marokon banatu genuen; eta beste zatia, Mauritania. Kirol- eta eskola-materiala ere eraman genuen. Hala ere, bertako eskolak itxia

egongo zirela ez genuen kontuan hartu, eta bat-batean hartu behar izan genituen erabakiak. Hau da, herri bat bisitatu eta hango umeei eman material apur bat.

Bidaia egiteko, lur orotako ibilgailu errusiar bi erosi zenituzten. Maletak eta materiala maletategian sartu, eta nola hasi zenuten abentura?

Hogeita lau ordu baino gehiago

“Istripuaren ostean, ahal izan genuen moduan itzuli ginen etxera: autobusez, trenez, autoz, motorrez...”

“Mauritaniako basamortuan hiru egun eman genituen galdurik, ur eta gasolina gutxi genuela”



eman genituen gidatzen, Chefchaouene-ra ailegatu arte. Auto baten ur-ponpa apurtu zitzaigun Fezen. Hango tailer batera jo genuen, baina gurea auto errusiarra zen eta ez zuten ordezeko piezarik. Beharbada, Casablancan topatzeko aukera edukiko zutela esan ziguten, eta lau egunen buruan bueltatzeko.

Zer egin zenuten orduan?

Beharrezkoa zen guztia beste autoan sartu eta Marrakechera abiatu ginen lau-
rok. Basamortutik ibili ginen, Atlas mendikatea gurutzatu genuen... Fezera deitu eta pieza ez zutela topatu esan ziguten. Egoera aztertu ondoren, Mauritaniara guztiok auto berean bidaiatzea erabaki genuen. Espainiara ere deitu genuen, pieza korreoz agintzeko. Benetan, momentu horretan hasi zen gure abentura.

Zelan moldatu zineten Mauritania-tik?

Han ezagutu genuen zer zen basamortua. Izan ere, Marokokoa turistentzat dago egokituta, errepide asko daude..., baina Mauritaniakoan errepide bakarra dago, eta, gainera, ez da oso ona. Bidaia errepide horretatik egin beharrean, basamortuan barrena egitea erabaki genuen. Eta bertan ez dago ezer, ez poliziarik, ez errepiderik... harea eta harea, besterik ez.

Zaila izango zen norabidea ez galtzea.

Minerala barrualdetik kostaldera garraiatzen duen trenbide batek zeharkatzen du basamortua eta guk hura hartu genuen erreferentziatzat. Iparrorratz batek lagunduta, Atarrera ailegatu ginen. Inguruan herri asko daude eta Chinguetin gizon bat ezagutu genuen polizia-kontrol batean. Hango lurretatik autoz

“Bertakoek sarritan esaten ziguten: Presaka ibiltzeak hil egiten du, lagun”

“Mauritaniarren izaera nabarmenduko nuke. Laguntzeko prest azaltzen dira beti, musu truk”

ibiltzea zaila zela esan zigun, harea asko zegoela, dunak... eta, nahi izanez gero, gure gidaria izango zela. Ostatua bere etxean hartu genuen, egun batzuetan bere familia eta lagunekin bizi izan ginen, eta gure autoan ailegatu ezin izango ginen lekuak ezagutzera eraman gintuen. Istripua izan genuenean, paperak konpontzen lagundu zigun, etxera itzuli ahal izateko.

Eta zelan itzuli zineten?

Ahal izan genuen moduan: minerala garraiatzen duen aipatutako trenbidean, autobusez, autoz, motorrez... Hondatu zitzaigun autoari ur-ponpa kendu eta Fezen utzi genuenari jarri genion. Handik etxera abiatu ginen.

Hamar mila kilometro baino gehiago egin dituzue guztira. Zein izan da tarte-



ESTILISTA
EVA ARDINES
AmAr
Aldaketa: 06/06/2009 10:00:00
091 551 00 00
091 551 00 00

CARRIPIPIA
ALBERTO
Taller de Reparación de
091 551 00 00
091 551 00 00

ZAMUDIO ESTANOLA
Teknologia, informazio eta enbriak
091 551 00 00
091 551 00 00

desire
091 551 00 00
091 551 00 00
091 551 00 00
091 551 00 00

VICTOR
091 551 00 00
091 551 00 00
091 551 00 00


Itzi Villalobos
Orkestra eta musikak
091 551 00 00
091 551 00 00



Batzuk bai. Gauza asko egin nahi genituen, eta denborarik ez. Ondorioz, presaka genbiltzan leku batetik bestera. Bertakoek hala esaten ziguten: "Presaka ibiltzeak hil egiten du, lagun". Eta aholku hori aukeratu genuen bidaiaren lelotzat. Beste alde batetik, bitxia iruditu zitzaidan Coca-Cola leku guztietan izatea. Adibidez, basamortu erdian dagoen dendatxo batean ez dute urik, baina Coca-Cola, bai.

Jendearen izaera. Oso ezberdinak gara euskaldunok, marokoarrak eta mauritaniarrak. Euskal Herrian mesfidatiagoak gara, eta han, berriz, laguntzeko prest azaltzen dira beti. Beno, Marokon diru truke izaten dela esan behar da, baina Mauritania desinteresatuagoak dira. Galduta edo egoera larrian ikusten bazaituzte, gelditu egiten dira, galdetzen dizute eta lagundu egiten dizute. Beste alde batetik.

Bostehun argazki baino gehiago atera diegu bertako jendeari, lekuei, basamortuari... Horietako 50 aukeratu eta ikusgai jarriko dira Sondikan. Dokumentala ere egingo dugu.





LAGINTZAILEAK

PELUMERIA AINARA
PELUMERIA ANE
PELUMERIA MIKEL
PELUMERIA OREYA
ETIAX IRRABERRIA
CENTRO DE BELLEZA NIMITSI
CENTRO DE BELLEZA ORENO
CENTRO DE BELLEZA SEGANA

PARTAIDEAK

CHORRORRI
DIALVO
BIBELINO SPORT
ETIAXEN PERA
FERRERIA OHIL
GANTZ
LA AGUA Y EL URBAL
OPTICA MIKEL
PERFUMERIA MARI
PRINCEPI
PRADA
TU Y YO
TODONIA
ZELUNA

MOZAZ
JANTZITA

URRIAREN 3 AN

19.00 H

LEKUA: SOLLUBE KALEA

[illegible]

IKAS!
INASTEGIA

Ikas, ikas, ikas, ikas, ikas
Ikas, ikas, ikas, ikas, ikas

IKAS! 091 100104100
0800 73.44 46

**Partitura musicalizadora digital
lectura sencilla.
Mala calidad.
Calidad musical excelente**




Per macchine
T
Trasformatrici.

- Ingegneri molto esperti
- Fabbrica esperienza
- Cambridge i iniezione
- Ingegneri per macchine, i in
- Ingegneri macchine trasformatori

LAVORANDO CON
 100 PER CENTO
 IN TUTTO IL MONDO

CONTATTANDO IL
 100 PER CENTO
 IN TUTTO IL MONDO

www.am.it
 100 PER CENTO
 IN TUTTO IL MONDO



IKASTURTEA 2009-2010

Barrio Plaza, 3 - 40160 BILBO  94 454 00 62  94 454 00 63 aula@egia.hogartibilbaoa.org

IKASTURTEA 2009-2010

IKASTURTEA 2009-2010

Barrio Plaza, 3 - 40160 BILBO
HARR. 1, 2 eta 3. maila (B1a)
Egitea eta gaitasunak, ikasitako, ez ikasitako, eragotziak
Aulakoakunak dituzten informazioak (B1a)

“Aurrera merkataritza”

Txorierriko merkataritza garatu, sustatu eta berritzeko laguntza-programa

Erronka handiak dituzte merkataritza jarduerak oro har, eta Txorierriko denda txikiek bereziki. Lehenik eta behin, herritarren ohituren aldaketari eman behar diote erantzuna, izan ere, merkataritza jarduera hirien kanpoaldera, azpiegitura zabaletara, eramateko joera progresiboa dago. Bigarrenenez, gaur egungo egoera ekonomiko larriaren ondorioei egin behar diete aurre. Eta, azkenik, teknologia berrietara moldatu behar dira. Horiek guztiak kontuan hartuta, egokitzeta eta berritzea baino beste erremedioirik ez dago.

Behargintza Txorierrik ondo ezagutzen du denda txikien egoera eta, horregatik, “Aurrera Merkataritza” programa jarri du abian. Programa jarduera nagusia merkataritza duten ETEei dago zuzenduta, eta helburu hauek ditu: Txorierriko merkataritza modernizatzea; merkatariei prestakuntza hurbiltzea; teknologia berrien erabilera sustatzea merkataritzan; eta kalitate-sistemak ezartzea sektorean.

Horrezaz gainera, Behargintza Txorierrik ohiko zerbitzuak eskaintzen ditu: **tramiteei buruzko informazioa** (izen komertzialak erregistratzea, merkealdia...);

Eguna	Aurrez aurreko Prestakuntza Orduetgia: 14:00etatik 16:00etara Lekua: Behargintza Txorierrri (Sondika)
2009/10/14	Informatika-eskaintza. Nola erosi ordenagailua (2 ordu)
2009/10/19	Zein programa aukeratu gure negozio edo jarduerarako (2ordu)
2009/10/21	Merkataritzarako kalitate-zirkuluak (2 ordu)
2009/10/26	Ukipenezko ST-ak (TPV), konponbide erraza eta edozein jardueratarra moldagarria (2 ordu)
2009/10/28	Datuen babesa zure negozioan (2 ordu)
2009/11/2 eta 4	Merkataritzarako esperientzia berritzaileak (4 ordu)
2009/11/9, 11 eta 16	Internet, webgunea eta merkataritza elektronikoa (6 ordu)
2009/11/18	Segurtasuna merkataritza elektronikoa (LSSICE) (2 ordu)
2009/11/23	Merkataritza-jardueraren kudeaketa (2 ordu)

diru-laguntzen gaineko informazioa eta kudeaketa (material informatikoa erosteko, webguneak eta merkataritza elektronikoa garatzeko...); **komertzio-negozio berriak sortzeko laguntza**; eta enpresa eta langileen arteko **lan-bitartekaritza**, besteak beste.

“Aurrera merkataritza” programaren bitartez **Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza**

ritzarako Berrikuntza Plana hurbildu da Txorierrira. Planak *on line* zein aurrez aurreko ikastaroak egiteko aukera ematen du. Ikastaroak merkataritzaren ordu-tegira daude egokituta (14:00etatik 16:00etara), doan dira eta, teknologia berrien erabileraren bitartez, merkataritzaren berrikuntza eta modernizazioa dute helburu.



INFORMAZIOA:

“Aurrera Merkataritza” programa
Behargintza Txorierrri
Telefona: 94 453 63 70
Faxa: 94 453 13 44
merkataritza@e-txorierrri.com
www.e-txorierrri.com
Ana Sonia Elorriaga Azkorra
Aitziber Osorio Marin



“Pala eskolea bultzatu gura dogu”

JAVIER AGIRRE | Irtxan pala klubaren presidentea

t/a: Gaizka Eguskiza

Zelan sortu zan kluba?

Iñigo Gaztelu, Alberto Amarika, Jon Rementeria eta Javier Larrondo bildu ziran 2006. urtean eta kluba eratu eben. Guztiak dira jokalaria. Gero niri esan eusten klubean sartu eta laguntzeko, eta holan presidente bihurtu naz. Idazkaria Oscar Serrano da. Bitxia bada be, ez dot palan egiten. Partidak ikusi, ikusi egiten dodaz, baina olgetako futbola nahiago dot (kar, kar). 2006. urtean hasi ginan Bizkaiko Federazioak antolatzen dituan txapelketak jokatzen, bai Udabarriko Txapelketea, bai Bizkaiko Txapelketea. Ganera, zenbait herrik –Plentzia, Gatika edo Armintza, besteak beste– udan egiten dabezan txapelketetan be hartzen dogu parte.

Garaipen garrantzitsurik lortu do-

Gitxieneko kirola da palea, baina Loiun honetarako zaletasuna piztu gura dau Irtxan taldeak. Helburu horrerri jarraituz, txapelketak jokatu ohi dabez eta umeentzako eskola imini dabe martxan. Xehetasunak Javier Agirre presidenteak emon deuskuz.

zue?

Bizkaiko Federazioaren txapelketetan ez, baina herriek antolatzen dabezan artean, Armintzan lortu dogu txapela orain dala gitxi, esate baterako. Dana dala, bagabilz gure jokoa hobetzen eta bikoteak finkatzen. Aurten pelotari guztiak bigarren mailan aritu dira, baina datorren denboraldian bikote bat behintzat lehenengo mailara igotzea itxaroten dogu.

Zergaitik sortu zan taldea?

Txapelketak jokatzen doguz, baina hori ez da gure helburu nagusia. Guk pa-

larako zaletasuna piztu gura dogu, eta horretarako eratu dogu eskolea. Gurera ahalik eta mutil gehien hurreratzea gura dogu eskolea bultzatzeko. Aurten Loiuko etxe guztietara izena emoteko informazioa helduerazoko dogu. Eskolara etortzeko deialdia zabaldu gura deutset Loiuko ume guztiei.

Zenbat lagunek osatzen dozue kluba?

Hogei pelotari doguz federatuta, eta sei-zortzi mutil eskolan. Federatutakoen erdia Loiukoak dira, baina Bilbo, Mungia

“Ez dot palan egiten. Ikusi egiten dot, baina olgetako futbola nahiago dot”

“Aurten bikote bat, behintzat, lehenengo mailara igotzea itxaroten dogu”

“Eskolara etortzeko deialdia zabaldu gura deutset Loiuko ume guztiei”

[illegible]

t/a: Zorrizketan

Zorritzketan euskera alkarteak ekarpen txikia egin deutso aurten Lezamako Mugetatik mendi martxa/lasterketeari, "puntu" kultural zehatza gehituz: Lezamako nekazariak eta abeltzainak gura izan doguz gogoratu eta zelanbait omendu,

(Sustine, Garaioltza)

Berotegiko urazak, udan zein nequan

LEZAMAKO BASERRITARREN ALKARTEA
 ("Sindikatoa". Aretxalde)

(Ugarte, Aretxalde)

Okela-behiak eta abelazkuntza

(Errentadorea Elorrian eta Madarian)
Berotegiko eta kanpoko barazkiak

JULIAN AZURMENDI

(Elorria, Goitioltza)
Landareak eta barazkiak

(Zamasolo, Garaioltza)

Barazki landareak

(Basalbeiti, Goitjoltza)

Ortuariak, txarrikia eta txakolina

euren bizimodu gogorra hobeto ezagutuz.

Sektore honen gaur egungo egoereaz jabetuteko, ez da derrigorrez Eustatera jo behar datu zehatzen bila, edo inkesta luze eta astun bat aplikatu. Nahikoa da eurek hiru zpalau berba egitea. Nahikoa da atzerantz 20-30 urte egin eta bizipen batzuk gogoratutea. Gutariko askok ezagutu dogunez, eta atzerantz begiratuz gero eta argiago ikusten dan moduan, familia asko eta asko bizi izan da solotik eta ganadutik. Ekonomia mistoa be izan da etxe askotan, familia aurrera atarateko. Gaur egun, ostera, Lezaman bederatzi familia baino ez dira huts-hutsean nekazaritzatik bizi, eta bi baino ez abeltzaintzatik. Euskal Herria ala Euskal Hiria? Ala biak?

LAURENTZI HORMAETXE

(Olabarri, Goitioltza)

Bertoko barazkiak, nekazaritza ekologikoa, salmenta zuzena



JON, ALBERTO ETA KARLOS LEKERIKA

(Basalbeiti, Goitioltza)

Berotegiko bazkariak eta lorak (sistema hidroponikoa)



**IÑAKI BILBAO
KONSUELO URIARTE**

(Dione, Goitioltza)

Bertoko barazkiak, urte osoan

**PEDROMARI LEGARRETA
BEGO LAITA**



(Basalbeiti, Goitioltza)
Landare mintegiak



**BENITO ETXEBARRIA
LUIS ANGEL ARTETXE**

(Olaburu, Garaioltza)

Esne-behiak



Lezama eta Bilbo arteko trenbidearen lehengo ibilbidea

t/a: Larrondoko lagunak

Uztailean, Lezama eta Bilbo arteko trenbidearen ibilbide zaharraren zati bat egin genduan oinez, Larrondoko lagunak antolatutako urteera baten. Ibilbideari Bidekurtzeko geraleku zaharrean ekin geuntsan, eta Artxandako maldan dagoan tunelaren sarreran amaitu. Bidean zehar, oso ezberdinak diran naturgune bigaz egin genduan topo.

Lehenengo naturgunean, landaretzak eta arboladiak dira nagusi. Atxina lubeta batek gurutzatzen eban Ipintza errekea, eta trenbidea haren ganetik joan. Baina 1983ko uholdeek suntsitu egin eben


*“Bidean aurrera joan
ahala haranaren
ikuspegi ederra eta
landare askotarikotasun
handia bistaratzen
deuskuz ibilbideak”*

lubeta, eta, harrezkero, itzulingurua emon behar da ibilbidera barriro joteko.

Era berean, lehen tarte honetan dago-

an eraikuntzarik garrantzitsuenagaz egiten dogu topo bidearen akaberan: 15 metroko lubeta bat. Haren azpitik Ateko erreka igarotzen da. Errekearen inguruan harrobi batzuk egin ziran eta handik ataratako harriak erabili ziran lubeta altxatzeko.

Bigarren tarte ur-andeletik tunelera ino doa eta beste era batekoa da. Ur-Par-tzuergoak etekina atera deutso guneari eta ur hodiak imini ditu bertan. Ondorioz, mantentze-ibilgailuak be ibiltzen dira handik. Akabuko tarte hau lehenengoaren erakargarritasuna eta xarma galtzen joan arren, oraindino egundoko arboladiak dagoz han. Besteak beste, haretzek, gaz-



cianoplan s.a.
global printers

Pilardu - 78 km. inguruko 100% z/n
40170 ZAMUDIO
Telefonoa 94 491 7112
www.cianoplan.com

- Inprimaketa eta plano kopiak.
- Kartelak, kartak eta z/n.
- Digitalizazioa eta berrinprenta, automatikoa eta lanperala.
- Irudiak eta kartak eta z/n.
- Era desberdinetako konposaketak.
- Plakardak eta z/n.
- Irudiak eta z/n.




Historia apur bat


Lezama eta Bilbo arteko trenbide zaharra 1892an hasi ziran eraikitzen, eta beharrak hiru urte geroago amaitu zituen. Azpiegitura inauguratu eben urtean, San Fermin egunez, istripu larria izan zan eta zauritu asko izan ziran. Istripuak oihartzun handia izan eban prentsan, eta, komunikabideetan azaldu zan legez, hildako asko be izan ziran. Trenbideak 1902an emon eban azken zerbitzua, izan be, desnibel handia egoan ibilbidean, eta, ondorioz, arriskutsua zan handik bidaia-tzea.

tainek eta hurretxek osatzen dabe paisaia, Txorierriko sekulako ikuspegi ederrakaz txandakatzen dabenak. Beste alde batetik, trenbidea inguratzen eban harresiaren aztarnak dagoz ikusgai inguruan, landareek ia oso-osorik estali arren.

Trenbidearen atxinako ibilbidea zoragarria da, erreza, bidean aurrera joan ahala haranaren ikuspegi ederraz ganera landare askotarikotasun handia bistartzen deuskuena.

Goiz ederra emon genduan, eta galderra nostalgiko bat buruan genduala bukatu genduan ibilbidea: Noiz arte egin ahal izango doguz honelako ibilbideak? Izan leiteke Lezamako trenbide zaharretik doan ibilbide hau berreskuratzea?





Gorontziak berriak

Manuskripto eta liburu berriak
Guzuzko liburuen inguruko liburuak, gure gurean,
zortzi labeak puztuak dituzte

Liburuen inguruko liburuak
1975-1985
Liburuen inguruko liburuak
Liburuen inguruko liburuak



ZAMUDIO

Liburuen inguruko liburuak
Liburuen inguruko liburuak
Liburuen inguruko liburuak



Liburuen inguruko liburuak
Liburuen inguruko liburuak
Liburuen inguruko liburuak



Aurten be, euskeraz egiteko gogoia dogu

a: Berbalagun

Euskeraz egin eta ondo pasau. Helburu bi horreek beteten saiatzen da Berbalagun proiektua. Horretarako, euskaldunak eta euskerea ikasten dabilzanak harremanetan iminten ditu, euren artean euskerea modu naturalean erabili dagien. Proiektua iaz jarri eben martxan Totoan Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioak eta Txorierriko Mankomunitateak. Txorierriko Udal Euskaltegiak eta Txorierriko AEK-k be laguntzea emon eben. Eskaeren arabera, talde bereziak sortuko dira aurten: bizkaiera eta hitanoa lantzeko taldeak, gurasoentzako tailerrak...

"Euskeraz berba eginez ondo pasau eta jentea ezagutu gura dauan edonori" dago zuzenduta egitasmoa, Oihana Astobietaren arduradunaren berbetan. "Bereziki, euskera ikasten dabilzanei, euskaltegian ikasitakoa praktikan jartzeko eta ahozkoa lantzeko modu erreza dalako". Halandaze be, euskaldun zaharrei edo guztiz euskaldunduta dagozanei be parte hartzeko gonbidapena egin deutse Oihana.



nak. "Batetik, euskaldun barriei bizimodu euskaldunean murgiltzen lagundu ahal deutseelako; bestetik, herritar euskaldun gehiago ezagutuko dabezalako eta euskaldun barrien ingurunea be ezagutuko dabelako. Sorpresa on asko jaso ohi dabez".




Izena emoteko

-Telefonoa:
635 75 35 95 (Oihana)


-e-mail:
txorierri.berbalaguna@gmail.com

-Non:
Txorierriko Mankomunitatea
Txorierriko euskara elkarteak
Udal euskaltegia
Txepetxa AEK euskaltegia

-Noiz arte:
Urriaren 23a

Talde txikiak osatzen dira (3-8 lagunetakoak) eta astean ordubetez alkartzen dira aisialdiaz gozatzeko eta euskerea lantzeko. "Iaz danetarik egin genduan: mendi ibilaldiak; triki-poteoa eta luntxa, Euskararen Egunean; mozzorro-afaria, Txan magogaz; helduentzako ipuin-kontalaria; masaje eta talo tailerrak... Eta ikasurte akabuan Gasteizera joan ginan,

Mintza Eguna, hau da, Euskal Herriko Berbalagun guztiak batzen diran egunera". Guztira 99 lagunek hartu eben parte iaz Txorierriko Berbalagun proiektuan, eta gehienak emakumezkoak izan ziran. Adinari jagokonez, 25 eta 75 urte bitarteko lagunak bildu ziran. Antolatzaileak "poz-pozik" agertu dira esperientziagaz eta "arrakastatsutzat" jo dabe ekimena.



Nortzuk dira derioztarrak?

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

–Egun on!
–Halan **eron!**
–Zer egiten dona Derion, Txori?
–Hamen, ba, Luki, porru landarea erosten.
–Erregimenean ipini behar dona senarra ala?
–Ez mutil! Jateko ekologikoa jagok modan.
–Zelan dakin, baina, ortuari ekologikoa zein dan?
–Erreza dok Luki! Nik bajakiat Txorierrikoa zer dan eta Deriokoa nor dan be.
–Deriokoa nor dan jakin, Txori? Handiagorik!
–Bai, Luki! Sinesgatxa eretxi arren, bada metodo seguru bat Deriokoa nor dan jakiteko. Ahoz-aho heldu jakun esakerea da dinoskuna: *Hori holan bazan, sartu daitela kalabazan, urten daijala Derioko plazan*. Ba, urten daigun plazara,

Atal barri honen helburua da, euskaldunen tradizinoko euskara bizia plazaratzea. Horretarako, alkarritzeta moduan kontauko da istorioa. Pertsonaia nagusi bi agertuko dira: bata, TXORI deitzen dan neska -Euskaltzaindiko izendegitik hartua- eta bestea LUKI, gizonezkoa, -hau be Euskaltzaindikotik hartua-.

Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez joango da. Adibidez: **etxakinat**; ganera, testuaren barruan, Txorierriko euskararen oso erabiliak diran forma ederrak sarritan tartekatuko dira: PARAU, HAMEN..., eta, bide batez, bazterrean lagata daukaguzan esamoldeak ekarri gura dira hiztunen artera: Halan eron (eroan).

martitzenekora, Gernikakoa baizen entzuna ez dan azokara, zeozergaitik esaten



da esan be-eta: *Derio eta Erandio, Sondika eta Loiu, arto asko erein eta gitxi koiu*.

Ba, plazan da jendea atzera-aurrera kalea betean. Ordu erdian behin igarotzen dira hegazkinak aireporturantz eta igaro be gane-ganetik, plazan dabiltzan saltzaile eta erosleak ia banan-banan orrazteko moduan.

Halanda guzti, hegazkinak astrapala hotsean pasau arren, Derioztarrak ohituta dagozanez, ez dabe gora begiratzen. Derioztarrak dira, orduan, gora begira paretan ez diran guztiak.

–Hi haz filosofoa, Txori! Gabriel zamudioztarrak egingo jozan barreak hire pasadizo hau kontatzen deusadanean. Dana dala, haran honetan **etxakinat** ekologikoa baino teknologikoa ez dan ugarriago. Agur eta kontuz porruekaz neskatu!!!

–Ai, Luki! Zeozergaitik daukak izena Luki, kontuak kontu eta emailak email, lukia oiloetara beti!



t: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria



URAS
Estetika dan musik



OSASUNEZ, PISUA GALTZERKO METODOA

PLAN 4 URATZURA 4 LE DITZA DUTAKO UNIBERTSITATEKO DOKTORATU (PHD) HIRUATZ DITZAKO FAKULTATEA

Esferetako lotaketa. 2017

PHD-EN DITZAKO GORRUPA PIRATATU

OSASUNEZ, PISUA GALTZERKO METODOA

PROFESORAKI DITZAKO
GAZTEAKI DITZAKO,
OSASUNEZ, ...

aisla RESTORANTE
19114

Zarautzako Defakadagor Mendiak
 2004 m. - 13448 m.
 T. 94 45 217000
 www.zarautzadefakadagor.com

BASERRI menua

1. Aizkorriko txerri errea (1/2), 2. Erretxatxoaren gajeraketa
 (1/2), 3. Erretxatxoaren gajeraketa (1/2), 4. Erretxatxoaren gajeraketa (1/2)

Erretxatxoaren gajeraketa (1/2), 5. Erretxatxoaren gajeraketa (1/2), 6. Erretxatxoaren gajeraketa (1/2)

29 €

gaitortasuna
 100% BCAA
 100% dago garraioan

LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOTERAPIA

Zer deritzozu
Aikor! aldizkariaren
diseinu berriari?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:
 –Telefonoz: 94 452 34 47
 –e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna: 50 motor
Irabazlea: Deñe Baqan

Bakoren bazterra

Ardoa atsegin izatea;
kontatzeko era bi

Iñaki Suárez, sumillerra


Kaixo aikorlagunak! Uda amaitzeaz dago eta gutariko gehienok lanean hasi gara berriro. Hala ere, batzuk oporretan egongo zarete, eta beste batzuk krisialdiaren ondorio latzak pairatzen. Guztiei doakizue nire proposamena.

Iaz, uda hastear zegoela, oporretan lagundu ahal ziguten proposamen batzuei buruz aritu ginen: disko bat, liburu bat eta pelikula bat. Bada, aurten oporren ostean egingo dugu; nostalgiari aurre egiten saiatuko gara, oporretako estresa-

ri, etorkizuneko zalantzei... Horretarako, bizi, emozio eta ardoz beteriko liburu bi gomendatuko dizkizuet.

Lehenengoa Noah Gordon idazlearen *La bodega* da (Roca argitaletxea). Josep lanaren protagonista da, eta haren onberatasunak, zintotasunak eta esfortzuak hunkitu egingo gaituzte. Gogor arituko da, estatuko politika-egoera asaldatuan aurrera egin eta bere burua hezteko, maitasun eta ardo ona egiteko grinaren bidez, oso baliabide gutxiarekin, baina gogo handiz.

Bigarren istorioa *Un viñedo en La Toscana* da eta Ferenc Máték idatzi du (Seix Barral argitaletxea). Munduko ardo-paradisuetariko batera, Toskanara, eramango gaituen bidaia zoragarria da. Idazleak bere esperientzia pertsonala kontatuko digu, ametsa nola bete zuen: Toskana bezalako gune magiko baten bizi eta mundu mailan ezaguna den ardoa egitea. Ametsa betetzeko, Josepek baino baliabide gehiago izan arren, liburu honek ere hurbilduko gaitu munduko herrialde horretako giza paisaiara. Eta agian, era birtual batean, animatuko gaitu bidaiatzera; eta lagunduko digu udazkenari irribarre eginez begiratzen, hori ere ez da gutxi eta. On egin!



Etxeko sukaldaritza

Espagetiak
ganbakaz

Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 300 g espageti
- 150 g ganba (zurituak)
- 4 berakatz atal
- Oliba-olio txorrostada bat
- Perrexila
- Ura
- Gatza



Prestatzeko ereak:

Ur ugaritan gatza eta olio apur bat bota eta espagetiak egosiko doguz 10-12 minutu inguruan. Uretan bertan itxiko doguz hotzitzen, eta geroko gordeko doguz.

Berakatzak txikituko doguz. Oliotan prijidu eta gorrituta dagozanean, ganbak gehituko doguz. Dena eragin eta eginda dagozanean, espagetiak botako doguz (ura kendu). Gatza eta perrexila, azken hau be ondo txikituta, botako doguz. Eragin apur bat eta zerbitzatuko dogu.

ERKORTU ZUEN
KONTAKTUA

ERKORTU ZUEN KONTAKTUA
ERKORTU ZUEN KONTAKTUA
ERKORTU ZUEN KONTAKTUA
ERKORTU ZUEN KONTAKTUA
ERKORTU ZUEN KONTAKTUA

ZANLUDIA MOTOR

84.800 1016
84.800 1004

84.800 1016
84.800 1004

84.800 1016
84.800 1004

BITOTEGIA ERORI DENDA

Ruben

Bitotegia Erori Denda
Bitotegia Erori Denda
Bitotegia Erori Denda
Bitotegia Erori Denda
Bitotegia Erori Denda

Ercoreca
supermerkatuak

Elikadura adituak



Gomendioak

Amagoia Gezuraga

LITERATURA: NAGUSIAK

- Eroriaren logika / J. Madariaga
- Londres kartoizkoa da / U. Elorriaga
- Nora ez dakizun hori / I. Jimenez
- Jantzi beltz bi / J. Penedes


LITERATURA: HAUR ETA GAZTE

- Gatu ttipi galdua / Natacha
- Luxoreko misterioa / B. Sortland
- Dottek nerbioak dantzan ditu / P. Schöder
- Irakasle desagertuaren kasua / J. Friedrich


MUSIKA

- Hainbeste han gutxi / J. Enbeita
- Fandango / K. Junkera & Melonius quartet
- Rock eta rollin' / Bilduma honetan euskal rockaren historia bildu da. Bertan hainbat musikarik eta taldek hartu dute parte: Errobi, Itoiz, Zarama, Jotakie, Piztiak, eta Urtz, besteak beste.

6 ezberdintasunak



Irudi bien artean aurkitu 6 ezberdintasunak. Zein da Korrika 16.aren benetako argazkia? Eskuinaldean ezberdintasunak dituzu: 1.- Erlojua, elizan; 2.- Mendia, etxe bien artean; 3.- Tximinia, eskuinean; 4.- Furgonetako atea, 5.- Neska korrikalaria, eskuinean; 6.- Neskaren petoa, behean. Aurreko letrazoparen erantzunak hurrengo orrialdean daude



Erakusketak

Zamudio

- > VII. Pintura Lehiaketan aurkeztu diren lanak. Urriaren 5era arte, Zamudiotorren.
- > Argazki Lehiaketaren lanak. Urriaren 12tik 29ra bitartean, Zamudiotorren.

Larrabetzu

- > Udal ikastaroetan egindako lanak. Urriaren 23ra arte, Anguleri aretoan.

Hitzaldiak

Derio

- > Maria Mendezen *Tener hijos no es lo mismo que ser padres* liburuaren aurkezpena. Urriaren 14an, 19:30ean, liburutegian.

Larrabetzu

- > Unai Elorriagaren *Londres kartoizkoa* da liburuaren aurkezpena. Urriaren 15ean Literatura Eskolak antolatua.
- > "Umearen arima zaintzea", Cristóbal Gutierrezen eskutik. Urriaren 23an, 19:00etan, Anguleri kultura etxean.

Ikastaroak

Larrabetzu

- > "Umearen arima zaintzea", Bizigune Zabaleko kideek antolatua. Urriaren 24an eta 25ean. Informazio gehiago: 94 455 89 40 (Angela Menica).

Irteerak

Zamudio

- > Kilometroak eta Nafarroa Oinez. Izena ematea: urriaren 1 eta 15era arte, hurrenez hurren.
- > Cervera de Pisuerga (Palentzia). Urriaren 9tik 12ra bitartean, Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Nagusi Azoka. Urriaren 17an, BECen. Izena ematea: urriaren 13ra arte.



Loiuko Azoka

Gastronomia eta Eskulangintzako XVII. Azoka. Urriaren 18an, 10:00etan, Zabaloetxan.

Kirola

Derio

- > Bizkaiko Pilota Txapelketaren finalak. Urriaren 3an, 17:00etan, pilotalekuan.
- > Bizikletaren VII. Festa. Urriaren 25ean, 10:00etan, Seminarioan.

Zamudio

- > Plater-tiroketa. Urriaren 17an, 10:30ean, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Txorierrri Ehiza eta Arrantza Elkartek antolatua.

Lehiaketak

Zamudio

- > Gabonetako Postalen X. Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 3a baino lehen.

Musika

Derio

- > Flores Raras taldea. Urriaren 30ean, 20:30ean, Gurea Aretoan. Sarrerak: 7 euro, informazio bulegoan.
- > Berako abesbatza eta Derioko Ipar-Alde abesbatza. Urriaren 31n, 19:30ean, San Isidro elizan.

Bestelakoak

Derio


- > Marcelino Aburtori omenaldia. Urriaren 17an, 12:30ean, osasun-zentroan.

Zamudio

- > Udazkeneko bazkaria. Urriaren 22an eta 23an, Adintsuen Elkartek antolatua.

Larrabetzu

- > Nagusien Nazioarteko Eguna: trikitixa eta kopaua, Gure Etxean. Urriaren 1ean, 17:00etatik aurrera.



Ezkerraldean AIKOR!
84ko letrazoparen
erantzuna. Umeakaz
erabiltzen diren 7
berba.





clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

- Erroreoroo
- Diagnostikoa jakintzagatik
- Teknologiarik berrienak:
 - Errealizazio Irakindorik
 - Kalitate handiagoroo
 - Ekologikoaoroo
 - Diagnostikoa jakintza eta Irakindoragoroo
- Ordaintzeko erraztasunak
- Aterkaleku gehiago

**Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku**



EGOITZA BERRIA



Txoriñi etorbidea, 9 - Lerja | Antsoaga erakina | 48160 DERIO **688**

94 454 01 01 | 657 79 54 45 **29**

info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com **@**